

Garean-Jarduerak

TXOKOLIPUINAK

Urtarrilak 29
Otsailak 26
Arratsaldeko 18:00etan
La Bota elkartearen

LIZARRAN KANTUZ

Urtarrilak 25
Otsailak 22
Arratsaldeko 19:30etan
Baxenabarra kaletik abiatuta

IRAKURLE KLUBA

Abenduak 19
Kristalezko begi bat, Miren Agur Meabe
Urtarrilak 30
Martutene, Ramon Saizarbitoria
Otsailak 27
Brodecken txostena, Philippe Claudel
Martxoak 27
Bitan esan beharra, Rikardo Arregi
Arratsaldeko 19.30ean
Lizarrako liburutegian

BERTSO ESKOLA

Helduak
Asteazkenero, 19:00etan,
Gareanen egoitzan.
Haur eta gazte
Asteazkenero, 16:00-17:00 eta 17:45-18:45
Lizarrako Beinat Etxepare AEK Euskaltegia.



Euskaratik kilometrotara

Herriko eskolan ezin ikasi, Lizarrara etortzeko autobusik ez edota hartzeko eskubiderik ez, Institutuan ezin autobusez herrira itzuli, Lanbide Heziketa ezin egin, haur eskolan lekurik ez...

Aitzinean aipatutakoak euskara hautatu duten guraso askoren eguneroko ajeak ditugu. Horrela, 2011/2012 ikasturtean adibidez, ia 1.000 haur eta gaztetxok ikasten zuten euskaraz Lizarra Ikastolan eta Remontival eskolan, hauek %52 hirian bertan du bizilekua.

Bertze %48arekin azpisailkapen berri bat egin genezake, batetik Vasceancearen Legearen arabera marraztutako ausazko mapan Eremu ez-euskaldunean erori zirenak eta

bertzetik Eremu mistoan jausi zirenak (Lizarrain gain, Deierrri, Abartzuza, Lezaun, Gesalatz eta Jaitz bertzerik ez Lizarraldean). Eremu mistoan dauden herrietako ikasleak ditugu %11a eta Eremu ez-euskaldunekoak %37a. Garesko

eskolan ere, azken urteotako datuak kontutan harturik, euskaraz ikasten duten ikasleen %42a Eremu ez-euskaldunekoak da. Argi dago, beraz, eskaria handia dela eta ez dela hiriguneetara mugatzen, eskualde osoko eskaria da.

Guraso horiek denak, ehunka familia, euskara transmititzea erabaki dute nahiz eta jakitun izan hainbat arazo artifizialak errire egin behar ziotela. Errealitate hau ezagutarazi eta gainditu asmoz, Euskaraz Bizi eta

Ikasi herri ekimena jaio berri da, berau Euskararen Legeak berak eta honen interpretazio itxiak kaltetutako norbanakoz osatua dugu. Euskaraz Bizi eta Ikasi adarkatze anitz dituen arazo komun bati aurre egin nahi dio.

...adarkatze anitz dituen arazo komun bati aurre egin...

Baina, eta nortzuk dira euskaratik urrunduak izan arren, euskarara hurbildu diren familia horiek? Hemen aurkezten dizkizuegu ale gutxi batzuk, eskatu egin diegu haien burua aurkezteko eta ondoko galdera laburrei erantzuteko: 1) Zer zailtasun topatu dituzue haurrek euskaraz ikasi ahal izateko? 2) Nola gaintzen dituzue zailtasun horiek? 3) Urteak pasa dira seme-alabak euskaraz matrikulatzea erabaki zenutenetik, damutzen zarete hartutako erabakiaz? 4) Zure herrian euskara eskainiko balute jende gehiago matrikulatuko litzateke euskaraz?

Carlos Garcia eta Ziortza Etxabe, Villatuerta, bi seme-alaba Remontival Ikastetxe publikoan, 5 eta 3 urte. Distantzia: 6 km, Villatuertan eskola dute.

1. Umeak gure herrian ikastea nahi genuen baina euskararen legegarengatik hau ezinezkoa izan da. Beste herri batzuetan gertatzen ez den bezala, Remontival Ikastetxean ikasteko, garraioa erabiltzeko eta jantokira joateko ez dugu arazorik izan, autobusa gure herrian gelditzen baita. Baina gure seme-alabek autobusa egunero hartu behar dute eta bizilagunak aldiz oinez doaz eskolara. Argi dago gure umeak herrian errotzea askoz zailagoa dela eta guri ere ahalegin handiagoa suposatzen digula, egunero herriko parkera eramaten ditugu eta Villatuertako eskolako Apy-mako kanpoko jardueretan parte hartzen dute.

3. Ez gara damutzen hartutako erabakiarekin, guk argi izan bainuen gure seme-alabek gure hizkuntzan ikasi behar zutela, ondorio guztiakin. Gainera, Remontival Ikastetxearekin oso pozik gaude.

4. Bai, dudarik gabe, gero eta zailago da lana eta familia uztartzea eta herrian eskola izateak horretan laguntzen du. Hemen bertan badaude gurasoak atzera egin zutenak suposatzen zuen denbora eta lanarengatik.



Ruben Tudela, Artaza, bi seme-alaba Lizarra Ikastolan, 7 eta 5 urte. Distantzia: 18 km, Ameskoan eskola dute; Blanca Etxarri, Oteitza, bi seme Lizarra Ikastolan, 6 eta 5 urte. Distantzia: 16,5 km, Oteitzan eskola dute; eta Yolanda Etxarri, Bakedao, bi seme Lizarra Ikastolan, 13 eta 11 urte. Distantzia: 18 km, Ameskoan eskola dute.

1. Ruben: "Zailtasun dexente, adibidez bus publikorik ez dagoenez kotxez jaitsi behar ditugu ikastolara, pentsa zer suposatzen duen: denbora, dirua, arriskua, laneko ordutegiak *negoziatu* behar... eta haurrek egunero ikastolako jantokian bazkaldu behar"; Toti: "gainera bere lagun gehienak Lizarran daude, herrian beraz ez daude hain errotuak"; eta Yolandak: "gurean adibidez, haurrak 7:45ean altxatzen dira eta 8:30 ateratzen (bailarako eskolara joateko busa 9:00etan abiatzen da) eta 20 minutu kostatzen zaigu Lizarrara iristea: gasolina gastu garrantzitsua, errepidearen arriskuak... Herrian gaztelaniaz egiten denez, horrek ere zailtasunak sortzen dizkigu".

2. Ruben: "Soniak eta biok lan egiten genuenean zailagoa zen, orain ni langabezia nagoenez piska bat errazagoa zaigu ordutegiakin. Bestalde, diru gutxiago izanik bidaiak eta jantokia kontrolatu behar"; eta Yolandak azaldu: "ordutegi malgua dugu, nire koinatuak jaisten ditu ikastolara bere seme-alabekin eta gastua handia izanik ere kultural irabazten dugu". Totik berriz, soluzioa eman die bie: "autobusa jarri edo euskara herriko eskolan".

3. Toti eta Ruben: "Ez gara inoiz damutu, euskara gurea da, altxor bat da eta zaindu behar. Guk zaintzen ez badugu... maite ez duenak ez dut uste egingo duenik..."; Yolandak, aldiz: "ni berriz batzuetan bai, batez ere negu gogorrak ditugunean".

4. Toti: "Bai, Oteitzan hainbatek bere seme-alabak Oteitzako eskolara eramaten dituzte, Lizarrara ez etortzeagatik"; eta Rubenek zehaztu: "gure herria Eremu ez-euskaldunean dago eta nahiz eta urtero eskolan euskararen alde gurasoen %90a inguru agertu, Nafarroako Gobernuak ez digu uzten jartzen. Ziur aukera balego arrakasta izango lukeela". Yolandak: "bai, nire ustez Ameskoako guztiak joango lirateke".



Eunate Lopez, Mendigorria. Hiru alaba Garesko eskolan, 8, 5 eta 2 urte. Distantzia: 7 km, Mendigorrian eskola dute.

1. Herrian ez daukagu euskaraz ikasteko aukerarik, beraz egunero hiru alabekin kotxea hartu eta errepideko arriskuarekin bizi behar dugu, gainera herriko umeekin harremanak hozten dira eta gastu garrantzitsua daukagu.

2. Zailtasunak senideen laguntzarekin gainditzen dira.

3. Guretzat erabakirik onena izan da eta berriro erabaki beharko bagenu gauza bera egingo genuke, euskaraz egiten den hezkuntza onena da.


4. Bai, gainera ez da uste bat, jendearekin hitz egin dut eta hala esan didate. Azkenean baina, ez dira herritik atera kotxea egunero hartu behar zutelako, gastua handitzen zelako eta Mendigorriako beste umeekin seme-alabek izango zuten harremana kezkatzen zutelako.

Familia hauek egunero egiten duten ahalegina ezin da neurtu, ahalgin horrek forma asko hartzen baitu: herrian errotzeko zailtasunak, ordutegiak, kotxean eraman beharrak, bazkaltzera geratu beharrak... Egin dezagun baina, esperimendu txiki bat. Demagun, ikasturte batek badituela 177 klase egun eta, Artzako Rubenen eta Soniaren adibidea hona ekarrita, bi joan-etorri eginen lituzke gutxienez haurrak Lizarran uzteko eta jasotzeko, egun batean 72 km, beraz, urtean 12.744 km. Demagun bidaia gastuak 0,19 € dela kilometro bakoitzeko, honek 2.421 € gastatzea ekarriko luke joan-etorrian bakarrik.


Zenbat familia geratzen dira euskara ikasteko nahia gastu gehigarriek, ordutegi ezinezkoek, herritik deserrotzeak, arriskuek ea. zupztuta? Lizarrako eta Garesko euskal ereduak %40a inguru Eremu ez-euskaldunetan bizi bada (hau da, erreportaje honetan aipatu diren arazo bat, bi edo denak sufritzen dituzte), ehunka familia zailtasun horiek gainditzeko apustua egin badute, zenbat geratu zaizkigu ezin ikasi?

Azken urteotan D ereduko ikasleen jatorria Lizarran eta Garesen

2011-2012 ikasturtean, Lizarra Ikastolan eta Remontivalen euskaraz ikasten zuten haurren jatorria. Lizarra (517 haur; %52), Eremu ez-euskalduneko herriak (361 haur; %37) eta Eremu mistoko herriak (108 haur; %11)



Garesko eskolan euskaraz ikasten zuten haurren jatorria. Gares (101 haur; %58) eta Eremu ez euskalduneko herriak (72 haur; %42)



Bodegas Lezaun
Asador-Jatetxea

Enoturismo
Bisita gidatuak
Ardo-dastaketak

Lakar (Deierr) NAFARROA
info@lezaun.com - www.lezaun.com
Bodega 948 541 339 - Asador 948 541 231

LIBURUDENDA
INO
PAPERDENDA

Kale Nagusia, 78 - Kale Antxo Ramirez, 2
Tel. eta fax: 948 550 383 · LIZARRA

Euskararen munduan sartzeko atea ireki da

Urtero lez iraila iritsi zen eta honekin batera Beinat Etxepare AEK euskaltegiaren matrikulazio kanpaina. Berriri urduri, berriri kirioak dantzan eta gure buruan galdera bakarra: aurten zer gertatuko da?

■ Lizarraldeko Beinat Etxepare AEK euskaltegia

Orain esan dezakegu 126 lagun ditugula gure artean. 126 lagunek ireki diotela atea euskarari eta inguratzen dion munduari. Batzuek iaz ala duela urte batzuk ireki zuten atea, mundu hau ezagutu eta sentitutakoa gustatu zitzaizen, gustatzen zaie. Berriek duela gutxi ireki dute; askok, beldurrez, euskaltegian topatuko zutenaren beldur.

Arrazoi asko dago atea irekitzeko, gure hizkuntza delako, seme-alabekin euskaraz hitz egin nahi delako, titulazio bat lortu nahi delako, euskaraz egiteko esparrua zabaldu nahi delako, euskaraz bizi nahi dugulako... Baina atea irekitzean burua ere irekitzen da, eta honekin batera pentsamendua, eta euskarak eta euskaltegiak ematen dizunak helburuak gainditzen ditu.

Hilabete pare bat igaro dira jada eta esan beharra dugu gustua ematen duela ikasleen aurpegiak ikusteak. Lehenengo egunetako urduritasuna pasa da eta arituak diren ikasleak gustura daudela esaten digutenean sentitzen dena ez du preziorik. Berriekin, nabari da atea parez pare ireki dutela, beldurra joan da eta sentitzen ari direna jakiteko atea ireki behar da.



Esan bezala, 126 ikasle ditugu AEKn, 12 taldetan banatuak. Bizi garen egoera zail honetan emaitza ezin da hobeia izan, ez baitakigu jendeak krisiaren aurrean nola jokatu duen edota batzuegan zer eragin duen. Baina emaitzak ikusita argi duguna da jendeak euskara nahi duela.

Aspaldiko partez hasiera maila goizez eta arratsaldez izatea lortu dugu eta txandaka ari diren zortzi lagunak euskaltegira joateko aukera dute. Beste batzuk ezin dira euskaltegira joan eta autoikas-kuntza izan da haien autua. Hamabi talde daude, hainbat maila, ordutegi eta leku betetzen dituztenak, betiere norberaren beharretara

egokitutakoak. Baina denek dute mundu berezi bat beste aldean, euskararen mundua. Grina sartu bazaizu eta atea ireki nahi baduzu euskaltegitik pasa zaitez, garaiz zaude!

Eskerrik asko ikasturte honetan mundu honen parte izateko erabakia hartu duzuen 126 ikasleei eta etorriko diren guztiei.

Lizarrako Beinat Etxepare AEK euskaltegiko matrikulazio datuak. Datuak ikasturte bukaerakoak dira, aurtengoa salbu, ikasturte hasierako datuak direla. Pentsatzekoa da datuak zertxobait hobetuko direla.



Jatetxea

Volante

Lagun-taldeendako bazkariak eta afariak

Merkatondoa, 14 · 31200 Lizarra · 948 555 695

LIZARRA

Lorategi mantentze-lanak
LOREZAINZA

Valdelobos, 35
31200 ESTELLA-LIZARRA
T. 948 554 067 - F. 948 395 112
M. 606 980 679
lizarjard@hotmail.com

Irakurle kluba: «letraminduak» elkartzeko tenorea

GAREANek, joan den azaroaren 7an, hasiera eman zion irakurle klubaren laugarren edizioari. Jarraian urte hontako programazioa eta saioen zenbait zehetasun ezagutzeko aukera izanen duzue....

■ Xabier Iabean

Oroitarazi nahi dugu kluba euskaraz guti-asko irakurtzen duen orori dagoela zuzendua, hortaz, nahikoa da gutienezko irakurzaletasuna zein literaturzaletasuna izatea bertan parte hartzeko. Beraz, jendea animatu nahi dugu parte har dezan; gainera, ez da behar-beharrezkoa saio guztietara joatea, eta ikasturtean zehar norberak ikusiko du noiz parte hartu.

Edizio honetarako ere sei saio prestatu dira. Lehen, hasmentan erran bezala, azaroaren 7an egin genuen, eta Jamaica Kincaid Antigua irlako idazleak idatziriko *Nire amaren autobiografia* izan genuen solasgai, eleberrri trinko eta ausarta, mihian herdoilik gabea eta Karibeko irletan kolonialismoaren garaian jasandako sufrimenduaren erradiografia bikaina dena. Abenduaren 19an, Miren Agur Meabe idazle lekeitiarraren *Kristalezko begi bat*, egilearen erranetan “aitorpen biografiko egiazkoa bezain iruzurtia” dena. Aztergai izanen dugun hurrengo Ramon Saizarbitoriaren *Martutene* eleberrri gogoangarria, euskal literaturak hondar urteetan eman duen benetako monumetu literarioa. Laugarren saiorako Philippe Claudel frantziarraren *Brodecken txostena* eleberrri borobila hau ere, bai kontzepzio narratiboan, bai giza izaeraren ikuskeran, eta Itziar Diez de Ultzurrun iruindar itzultzaileak bikain itzulirikoa, gainera. Martxoaren 27an, lehen aldizkoz gure saioetan, poesia liburu bat hautatu dugu: Rikardo Arregi gasteztarraren *Bitan esan beharra*, Espainiako Literatur Kritikariaren Elkartearen poesia alorreko sariaren irabazlea. Eta, bide batez, guk ere bitan esan beharra dugu egilea etorriko dela egun horretan Lizarrako liburutegira gurekin batera liburuaz solastera. Eta ikasturteari akabaila emateko, Florentzian sorturiko Lorenza Mazzetti idazle eta gidoilariaren *Zerua gainbehera dator* eleberrri autobiografikoa, gurekin aitzineko saio banatan egon ziren eta literatur itzulpengintzan erreferentzia nagusietako bat diren Xabier Olarrak eta Fernando Reyk itzulia.

Bertzerik gabe, animatu eta zatozte denona den irakurle klubera!

IRAKURLE KLUBAREN EGUTEGIA

Saio guztiak Lizarrako Liburutegian izanen dira, 19.30ean, beti ortzegunetan.

Azaroak 7	<i>Nire amaren autobiografia</i> , Jamaica Kincaid
Abenduak 19	<i>Kristalezko begi bat</i> , Miren Agur Meabe
Urtarrilak 30	<i>Martutene</i> , Ramon Saizarbitoria
Otsailak 27	<i>Brodecken txostena</i> , Philippe Claudel
Martxoak 27	<i>Bitan esan beharra</i> , Rikardo Arregi
Maiatzak 29	<i>Zerua gainbehera dator</i> , Lorenza Mazzetti





Foto-inkesta

Zinema

Kotarrok gustuko du sormena, gustuko du artea eta gustuko du irudimena. XX. mendetik aurrera jende askoren ametsak eta mundu berrien aurkikuntzak zinemaren bidez egin dira. Ikus-entzunezko guztien aitzindaria izan da eta oraindik ere, formato ezberdinetan, beste bizitza batzuk bizi ahal izatera eramaten gaitu. Gure galderak horretaz zuzendu dizkiegu honako lagun hauei:

1. Zer pelikula duzu gogoan oso gustuko izan zenuelako? Eta zein oso aspergarria zelako? Zergatik?
2. Zein dira azken boladan ikusi dituzun pelikulak?
3. Krispetarik (palomitarik) bai ala ez?



Jon Mikel Pelaez

1. Gehien gustatu zaidanetako bat *Eraztunen jaunaren* trilogia izan da. Bi aldiz ikusi dut oso-osorik, aldi bakoitzean 13 ordu edo dira. Bestalde gustatu ez zaizkidan artean azkenaldian telebistan botatzen dituzten pelikula alemaniarak, artifizialegiak egin zaizkit.

2. Umeekin joan nintzen eta *Zipi eta Zape* ikusi genuen. Haur txikiena aiton-amonekin utzi genuen eta beste guztiak elkarrekin zinemara joan ginen aspaldiko partez.

3. Bai, txikiakin joanez gero derrigorrekoak dira. Etxean ikusiz gero pipak jatea gustatzen zait.



Fernando Ripa

1. *Barkaziorik gabe* Clint Eastwood-ena, western-ak atsegin ditudalako, baina ez betikoak, baizik eta onak. Esan nahi dut ez txar horietakoak, beti indioek galtzen dutenak... Baita *Los tres entierros de Melquiades Estrada*, Estatu Batuetara doan emigratzaile batena da, oso ona. Samurregiak direnak aldiz, ez zaizkit gustatzen, *Águila roja* bezalakoak ere ez, eta telenobelak gorroto ditut.

2. Pitufoen bigarren zatia, eta egia esan gustatu zitzaidan, ez zen oso ona baina bai entretenigarria.

3. Bai, nire ustez ez da jate hutsa, errituala baizik, krispetarik gabe ez dago zinemarik umeentzat. Etxean ere pelikulak ikusten ditugunean krispetak prestatzen dizkiet.



Lander Garmendia

1. *Acorazado Potenkin* esan behar nuen baina *Airbag* esango dut, eszena batzuegatik, adibidez ume kotxea eskaileretatik erortzen denean *Elliot Ness* eta *ukiezinak* pelikulan bezala.

Gutxienetako bat *Goenkale*, telebistako seriea, "andra txotxin asko dagozelako".

2. *Madagaskarko pinguinoak* ikusi nuen zineman eta etxea berriz *Ni Kristina F* gaztetako pelikula.

3. Ez, krispetarik ez. Iluntasuna gustatzen zaidalako pelikulak ikusteko.



Gotzone Jauregi

1. Niri zientzia fikziokoak gustatzen zaizkit, lehenengo batean *ET* ikusi nuen berriro eta malkoak ateratzen zitzaizkidan. Ridley Scott-en *Blade runner*, Spielberg-ena eta Tarantinorenak ere bai.

Gutxien gustatzen zaizkidanak berriz, igande arratsaldeetan telebistan botatzen dituztenak dira.

2. Azkenak Pixar-eko guztiak. Marrazki bizidunak dira eta oso politak. "Fondoa" daukate, kritika egiten dute. Umeen pelikulak izan arren helduentzat ere mezuak edukitzen dituzte.

3. Bai, umeekin bazoaz krispetarik gabe ezin daiteke zinemara joan.

ESTELLA PASTELERIA GOXOTEGIA LIZARRARA
NAPAL MONTOYA
Angela
Plaza Fueros 2 - Tel 948 55 07 95

KATXETAS
Taberna

Estudio de Gramática, 2
31200 Lizarra- Nafarroa

Tel. 948 550 010



JA!

GAUR EGUNGO ARMARIK MINGARRIENA
GOZOGILEEN ESKU OMEN DAGO.
ZUZEN-ZUZENEAN
BURU-ESTIMUAK
MINTZEN BAITITU!

denborapasak



Gurutzegramak

Zinema

Ezker eskuin

3. Zinema sari ezagunak.
4. Zinema aitzindariak anaiak.
6. Urbasan grabatutako pelikula ospetsua.
7. Indiako zinema.




Goitik-behera

1. Zinemaren meka.
2. Lizarra inguruko ikazkinarena.
5. Mikelen heriotzaren zuzendariaren abizena.
8. Lizarrako zinema areto zaharra.

Euskalglofoa

Zer da zinema?



EQUIVALENZA

Egunero arrakasta!

Comercio kalea, 6
Tel. 948 98 27 28
Lizarra - Nafarroa

Masajista diplomaduna
Goi mailako kosmetika
Aurpegiko eta gorputzeko tratamendu berriak

Mirari
centro de estética y masajes

c/ urbieta, 1 / 31200 estella
t. 948 554 001

www.centromirari.com

«Pausorik pauso. Ikastola auzolanean»

Abenduaren 27an, GOLEM-eko areto nagusian, 1970ean sortu zen Lizarra Ikastolaren hasierako bi hamarkaden historia eskaintzen duen dokumentalaren estrainaldia izanen da.

■ Kotarro

Badira lau urte dagoeneko Ricardo Galdeanok eta Pello Etxanizek **“Se prohíbe la palabra. Errepublikako Lizarrako Ikastola”** dokumentala eskaini zigitela. Orduan Errepublika garaian Lizarran hiru urtez martxan egon zen ikastolaz egin zuten lana, gerrak eta Francoren aginteak bertan behera eraitsi zutena. Orduko andereñoa eta ikasleak ziren protagonistak. Egindako lan hari jarraipena ematera dator oraingoa, **gaur egungo ikastolak** lehenbiziko hari jarraipena eman dion bezalaxe.

Frankoren agintealdiko azken urteetan gertatu zen nolabaiteko “irekiera” probestuz, berriro ere, bigarren aldiz, Lizarrako zenbait herritar ikastola eraikitzen hasi ziren 1970ean. Herri ekimena izan zen, herriarengandik jaio zen asmoa eta herriak berak auzolanean ekin zion lanari. Sorreran, lehenbiziko eta sendotze urteetan zailtasun ekonomikoei eta eragozpen politikoei elkarlanean aurre eginez lortu zen proiektu herrikoiairen historia eskaintzen zaigu.

Ehundaka protagonista izan dituen historia da, dokumentalean horietako asko agertzen dira testigantza emanez. Hainbat elkarrizketa egin diete gurasoei, irakasleei eta ikasleohiei. Baita Ikastolen Elkartean historia guztia ezagutzeko aukera izan zuten protagonista batzuei ere.

Egileek azpimarratzen dutenez, Lizarra Ikastolaren historian gertatutako hainbat mugari eta aldaketa garrantzitsu Euskal Herriko ikastola gehienetan gertatuak omen dira: sorrera, 70 hamarkadako krisi ideologikoak, elizak emandako babes, legezatzeko prozesu korapilatsua, hazkuntzak ekarri zituen arazoak, irakaskuntza metodo berritzaileak, eraikuntza egokien beharra, zenbait ikastolen publikazioa... eta ikastola honen historiatik abiatuz ikastolen historia orokorra hobeki ezagutu ahal izateko parada izanen dela ziurtatzen dute.



kotarro

26. zenbakia

Julio Ruiz de Alda, 6 behe, ezk.

31200 Lizarra - Nafarroa

Tel. 615 752 842

Argitaratzen du:

Lizarrako GAREAN Euskaldunon Elkarteak



Diseinua eta maketazioa:

Chapitel Komunikazioa

Lege gordailua: NA. 1986-2007

Ale kopurua: 700



paper birziklatua

Kotarro aldizkarian agertzen diren artikuluaren edukinarekin ardurarik GAREAN Euskaldunon Elkarteak ez du hartzen, edukiaren erantzukizuna, bere osotasunean, autoreena baita.